

RDUZE TXORIERRIRA

Mikel Zaratek ez du eduki Unaraunorekin lehiatzeko aukerarik. Zer gustagarriagorik, Mikel, Unamuno biziarekin eztabaidan ezagutzea baino? Bilbo, Zazpi Kaleetara mugatzen zenean, idazten bazituen euskarari buruzko astunkeriak, zer ez ote zukeen idatziko gaurko Gran Viatik? Zaratek, oster, zer ez ote zion erantzungo, Bilboko Azoka, Lezama, Zamudioko bendejeraz beterik ziren egunetan, gure Don Migueli?

Baina, Don Miguel Unamuno y Jugo erdararen seme kapritxosotzat azaltzen zen egunetan, Zarate gutxi ziren eta euskara urri.

Gaur, hizkuntza berriko zaharra nahiz hizkuntza zaharreko gaztea joanak direnean, Txorierri hemen dago, baita euskaldunak ere.

Kanpotik bazatozte oso oskol erdalduna aurkituko duzue. Barrukoekin bazabiltzate, erdaldunen multzoan euskaldunekin ere egingo duzue topo.

SIADECOko Larranaga jaunak, euskara irakaskuntzan sendo dagoela dioen egunotan, gainbegira dezagun Txorierriko irakaskuntza publikoan zelan dagoen.

Derioko instituttoa:

Derioko instituto honek, «Euskal Area» delakoaren barruan dagoen arren, erdaldungoa duenez nagusi, neurri dinamiko eta bortitzen premia dauka.

1982/83.ikasturte hau, urte historiko bilakatuko da Txorie-
rriko eskualderako, aurton hasi den Elebidun Programaketak
espero ditugun emaitzak badakartza. 85/86.ikasturtean, 1.kur-
tsoko talde euskalduna UBIRA hel dadinean, ikastetxean aurki
daitezkeen 150 euskaldun zaharrek, euskara erabiliko dute
euskaldunen arteko harremanetan. Hain zuzen ere, euskara
kultoz jantzi eta adin heldutasunera datozenean erabiltzen
baitute euskara etxetik dakitenek. Euskarazko titulua euska-
raturik atera ahal izango den lehen promozioa ere orduan
emango da.

Erdaldunen multzoa ere ez da gaurko karakteristiketako
gertatuko. Inguruan, euskaldun lotsatuak barik, eragile dire-
nak ezagutuko dituzte. Eta oraingo mailaketaren arabera, 1.eta
2..TALGI HADIetako edukinak menperatu beharko dituzte. Ho-
rrela nolabaiteko hiztunak izatea posibletz, egunoroko bizi-
tzan erdaraz mintzatuko diren arren.

Guzti hau aurrera eraman ahal dugula jakinik ere, ikastur-
tearen hainako garrantzia daukatela UDAKO IKASTAROAK
ere esan behar dut. Euskaldun gazteok, lagunaren arteko joan
etorrietan euskaraz bizitzeko ohitura beregana dezaten, pare
bat ikastaro behar dituzte batxillergo sasoian.

Irakaslegoari dagokionez, egungo jokabideen arabera, er-
daldun asko egonik ere, euskaldunak gehituz joango dira, ele-
bitasun beharrianei erantzunez.

Gurasoak, mass mediak, zein gizartea nondik nora ibiliko
diren jakin ez arren —eta erabateko garrantzia dauka—, ira-
kaskuntzari dagokionez urte aipagarritzat izenta daiteke aur-
tengoa.

A.—Euskeraren irakaskuntza:

Estatistika nagusi den aroan, beste ezer baino lehenago datoak eskeiniko ditugu:

Kurtsoak	Kopurua	Taldeak eai guztiatarako	Taldeak, euskarako orduetan		Euskarako orduan euskaldunak	Ehuneko tionenbesteak
			Dakitenak	Ez dakitenak		
1	91	3	1	2	24	% 26
2	69	2	1	2	19	% 28
3	67	2	1	2	22	% 32
UBI	66	2	1	1	20	% 30
	293	9	4	7	85	% 29

Halere, kuadro honetatik ateratzen diren portzentaiak baino askoz garrantzi handiagokoa da, urtero talde euskaldun berria eratu ahal izatea.

Esandakoaz gainera, ELEBITASUN PLANGINTZAZ zera idatz daiteke: 2.eta 3.kurtsoetako euskalduna, 20/22ko multzoak osotzean, elebitasun programaketa jarraitzeko gai dira, baina 1982/83.ikasturtean 1.Gkoentzat bakarrik hasi denez 2.eta 3.kurtsoetako euskaldunek euskara ikasten dute 3 orduz baina ez euskaraz.

Urrats aberasgarria da, euskararako baino ez bada ere, euskaldunak batera iraun ahal izatea. Horretarako, ORDEZKARITZAK nolabaiteko araudia emango baligu, ez genuke, urtero, zuzendaritzako ardura norengan jausten den itxaroten egon beharko. Ordezkaritzak begi onez ikusten duen arazoa izan arren, zentroko arduradunen boronpe hutsean egoten baikara.

Batxillergoko kurtso guztietan eta batez ere UBIIn badago urtero jasaten dugun arazo desegokia. Inguruko ikastetxe pribatuetatik, batez ere —Derioko Eskoletatik ere badatoz eta—, tutik ere ez dakiten ikasleak heltzen zaizkigu. Noiz arte? Hor legegileek dira legea bete arazi behar dutenek. Oraingoz, tamalez, BBBko plangintza hutsetik hasi beharrean aurkitzen gara. Hau da, OHOean euskara maila I edo II emanik datozenak, berriz zerora itzuli beharra daukate eman ez dutenen

erruz. Aurtengo apirilean heldu gara eskola publikoekin hitzarmen zehatz batera, Batxillergo aroan hutsetik abiatu barik, S.kurtsoan utzi zuten mailatik aurrera jarraitzeko. Ezer ikasi gabe datozenekin, mundik hasi?, zer egin? Legea geure aide dago. Zuek zelan jokatuko zenukete?

B,—Euskaraz irakaskuntza:

B-1.—Elebitasuna aurtan hasi denez, 1.C taldea da euskaraz ikasten diharduena.²⁴ neska-mutil dira. Txorierrin ikastolarik ez dagoela, zori handia da euskaldun talde hau osotu ahal izatea batxillergoan.

Talde honetarako irakaslegoa honela bana dezakegu: Euskaldunak: Musika, Euskara, Historia, Hiskuntza, Natur Zientziak, Matematika eta Ingelesekoak; Erdaldunak, Erlijioa, Iru-dia eta Gimnasiakoak.

Bai dela penagarria, falta denagatik, denak euskaldunak ez izatea. Eusko Jaurlaritza katedratikoekin ez denez sartzten, hauek instituto elebidunetara joan ahal dira, eta joaten dira, euskararik ikasi gabe egonik. Nik uste, ikasleak bizkortzen direnean, ez dutela arazo gutxi sortuko.

laz geneukan erlijiorako irakasle euskalduna kenduz erdalduna institutoratzeak ere eman zigun rain, bai! Eleizak ere badu etsairik bere barman.

8,2.—Taldea elebidunean, zer pi-oporteiotan irakasten da euskaraz?

Irakaslea euskalduna izan arren, ez da gai osoa euskaraz ematen. Ikasleen ritmoa zaintzeagatik, irakaslearen trebatu beharra edo texto eskasiaren erruz %ko 30 ematen da euskaraz, aurtan. Textuak badira, eta direnak, apunteetan moldatuak. Hiru urte luzez gabiltza Gasteizen textukintzarako talde bat ezin liberatuz. Ezin ulertu dauden textuak zergatik ez diren argitaratzen nahiz behar-beharrezko diren berriak moldatzeko talde teknikoa sortzen.

Hemen ahantzi ezinezkoa da 24 ikasletarik bakarria dela ikastoletatik etorria. Gainerakoek, gurasoengandik txikitik hartua, eskola erdaldunekin batera landua eta lagunartean erabili gabea daukate.

Erljio-Etikaz ostopo bat gehiago batzen zaigu. Talde berrekoak, erlijiora edo etikara joatea hautatu behar dutenez, euskaldunak erdaldunekin nahastu beharrean aurkitzen dute beren burua. Hurrengo kurtsuetan, 3.ean eta UBIn optatibak aukeratze orduan, benetako oztopoak gerta daitezke. Euskaldunek nekez osatu ahal izango dute, adibidez, griego ikasteko taldea.

Gure benetako asmoa, datorren urtean, aurten jaso duten euskarazko osainoldiaz eta udako ikastaroaz hiru edo lau gai euskara hutsez azaltzea da.

Nire urteetako irakaskuntzak erakutsiaren arabera, euskara bera baino koefizientea da arazo. Buruz argiak, gabonetarako bereganatu ditu euskarari buruzko ezagutza minimoak, gaia jarraitzeko hainakoak. Hori, beti ere analfabetoak izanik etxetik polito dakitenean.

C.—IrakasSegoaren euskaldumiasuna:

22 irakasletarik:

6k badakigu euskara. Etxetik neuk bakarrik.

2k ulertzen dute. Ez dira ikasten ari.

1ek bost hilabetetako funtzionarietako euskara ikastaroa egiten dihardu.

7 poliki-poliki ari dira. Aste barruko 4/6 orduko ikastaroetan.

6k ez dakite, ez dira ikasten ari. Hiruren bat beren lurraldeetara itzultzeko gogoz.

4 langiletarik, sekretariako biak eta giltzazain batek badakite. Bakarria da ez dakiena.

Ikusten duzueenez, lantxo honetarako, eguzki alderkiko ke-reizak hartu ditut. Izan ere, akats guztiez, institutoko egiarik ederrena euskaldunak baitira. Berez, epe laburrera, euskaldunak dira gure helburua. Helburu txiki bi betetzeaz pozik gara datozen hiruzpalau urteetan: euskaldunak elkarren artean euskaraz berba egitea eta erdaldunak lagun euskaldunak imitatzen ahalegintzea.

Hiztun berririk ez dugula sortzen? Lasai, hori bigarren fasea litzateke. Horretarako bai behar dela inguruaren, *he** rriaren aldaketa. Guk errealista izanik, daukagun euskalduna kontzientziatu eta praktikante bilakatzen badugu, ondo goaz, Dereduko euskaldunak eta OHOetik euskara nahiko ikasirik etorriko diren neska-mutilak institutoratu arte.

Eustea, dagoena indartzea, zubi zeregina betetzea dagokigu, orain eta hemen.

Mikel Zarateren loba, aurreko mahaietan ikusten dudanean, Unamunoren amama zaharrak ere iloba politik dauzkala pentsatzen dut. Nire, gure lana amama zaharraren euskara ederrez iloben euskara urria aberastea da. Zubigintza. Zubia uhertzera, bestaldera hel dadinean, ez gara behar izango. Lur sendora ez gero ez da gure egunotako heriotz larridurarik somatuko.

Juan Luis Goikoetxea